



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 27a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzekoa. (3. or.).
- Foru Lege proiektua, iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzkoa. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena (6. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsitako irizpena (20. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatzen du espainiar militarrek beren nazioarteko misioetan egin ahal izan duten tortura eta tratu txar oro. Ezquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazioak has ditzan Lodosako Udalarekin, “El Ramal” industrialdea Sartagudako errepideko biribilgunearekin eta herriko saihebidarekin lotzeko lanak egiteko akordio bat lortze aldera. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarri- ei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2013ko otsailaren 25eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Testuaren artikulua bakarria aldatzeko zuzenketa.

Testuaren artikulua bakarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Artikulu bakarria. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak.

1. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an eta 2014an aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.246,53 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an eta 2014an aplikatuko zaien modulu ponderatu gabea 1.192,85 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko”

Zioak: Kontuen Ganberaren txostenak, babes ofizialeko etxebizitzaren moduluak azken hamar urteotan izandako bilakaerari buruzkoak eta egungo etxebizitza-merkatuaren baldintza eta kostuetara egokitzen den ala ez jakitekoak, agerian uzten du ezen, krisi ekonomikoak zaildu egiten badu ere

etxebizitza babestuak eskuratzea, moduluak 2005-2012 epean KPIa baino askoz gehiago igo dela, eta horrek ere garestitu eta zaildu egiten du etxebizitza eskuratzea.

Neurri honekin ziurtatuta gelditzen da etxebizitzaren prezioak bi urtez ez duela igotzen jarraituko, eta, horrela, herritarrei erraztu egingen zaie etxebizitza bat eskuratzea. Zuzenketa honekin, hain zuzen ere, benetan gutxiagotzen da etxebizitza babestuen kostua, kontuan hartu behar baita KPIaren handitze benetakoak deflazio-efektua izan zuela 2012an, eta halaxe gertatuko dela 2013an eta 2014an.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Xedapen iragankor bakarria gehitzeko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

Lege proiektuaren edukia, hau da, moduluaren prezioari eustea, kontraesanean dago xedapen gehigarri bakarrarekin.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura foru lege proiektu bat igorriko du sakon berrikusteko Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak, eta, berri-

kusketa horretan, aintzat hartuko dira Kontuen Ganberak emaniko gomendioak

babestutako etxebizitzaren moduluari buruzko abenduaren 18ko fiskalizazio-txostenean (2005-2012 ekitaldiak).”

Zioak: 2013rako moduluak izoztea, ikusita zein diren Kontuen Ganberaren gomendioak, aski gertatuko ez den konponbide aldi baterakoa da, eta lehenbailehen izan behar lukeen segida litzateke moduluen berrikusketa bat, gaur egungo zirkuntantzia ekonomikoetara egokitua.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankor bakarra. Moduluak eguneratzeko formula.

Nafarroako Gobernuak, 2013ko urria baino lehen, lege proiektu bat aurkeztu beharko du Parlamentuan, aldatuko duena maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10.5 artikuluan jasotzen den formula, etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriari aplikatzekoak zaizkien moduluak eguneratzeko. Formularen aldaketak kontuan hartuko ditu Kontuen Ganberaren eta eraikuntzaren sektorearen gomendioak”

Zioak: Epe zehatz bat ezarri behar da babes ofizialeko etxebizitzaren modulua eguneratzeko formula aldatzeko. Uneotan indarrean den formularen aplikazioa da lege proiektuak jasotzen duen aukera bakarra, eta Kontuen Ganberak formula hori aldatzea proposatu du.

Foru Lege proiektua, Konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2013ko martxoaren 20an hartutako erabakiaren bidez, Konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 127. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eleunden Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzeko Foru Lege

proiektua presako prozedurari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **zortzi egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko apirilaren 12an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketa aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2013ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzekoa

ZIOEN AZALPENEA

Foru lege proiektu honen helburua da laguntza fiskala ematea gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren eta berdintasunaren arloan jarduerak gauzatzen dituzten proiektuei, betiere betetzen badituzte ezarriko diren zenbait eskakizun, eragin-kortasun, efizientzia eta gardentasunekoak, alegia. Horrez gain, proiektu horiek “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua lortu beharko dute.

Proiektu horiek sustatzeko pizgarri fiskalerako Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko indarreko 10/1996 Foru Legean ezarritako esparrua erabili da. Foru lege horren barruan, xedapen gehigarri berri bat txertatu da, egokiro bereizteko, batetik, “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua lortzen duten proiektuetarako pizgarriak, eta, bestetik, legearen gainerako artikuluetan ematen diren beste pizgarri fiskalak. Araua argitzeaz gain, foru legearen xedea da pizgarri fiskala nabarmen hobetzea “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua lortu duten proiektu horietarako.

Xedapen gehigarri horren 1. atalean ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako kontseilariari foru agindu bidez ezar ditzen proiektu horiek bete beharko dituzten eraginkortasun, efizientzia eta gardentasun baldintzak, bai eta “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua lortzeko prozedura ere.

Horrela, Nafarroako Gobernuaren gizarte politikak egoera behartsuan dauden edo zailtasun bereziak dituzten zenbait gizatalderi begira jartzea da helburua, haien garapena eta autonomia pertsonala jomugatzat hartuta. Gizatalde horiek, besteak beste, desgaitasuna duten pertsonak, emakume talde jakin batzuk, eta, oro har, gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dauden pertsonak dira. Arauaren beste asmoetako bat da Nafarroako gizarte zibila mobilizatzea, gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren eta berdintasunaren arloan jarduerak betetzen dituzten proiektuak finantzatzeko parte har dezan, gure inguruan egoera behartsuan daudenei sostengua emateko.

Gizarte Politiketako kontseilariaren foru aginduen bidez egindako deialdian oinarrituta, departamentuko organo eskudunak luzatuko die “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua ezarritako baldintzak betetzen dituzten proiektuei, horretarako ebazpena onetsirik. Ebazpen horretan zehaztuko da, halaber, kasuan kasuko proiektua irabazi-

asmorik gabeko zein entitatek gauzatuko duten, bakarka nahiz beste batekin edo batzuekin elkarlanean.

Xedapen gehigarriaren 2. atalean ezartzen dira pertsona fisikoei emanen zaizkien onura fiskalak. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kasuan, eskubidea izanen dute dohaintzan emandako zenbatekoen ehuneko 40 kuotatik kentzeko, baita konpromiso sozialeko proiektuak gauzatzen dituzten entitateekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbatekoen portzentaje hori bera ere, proiektu horiek finantzatzeko erabiltzen badira.

3. atalean “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua lortzen duten proiektu hauek diruz babesten duten pertsona juridikoentzako onura fiskalak jaso dira.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboei bi onura fiskal izanen dituzte. Alde batetik, dohaintzan emandako zenbatekoak kengarritzat hartuko dira, baita konpromiso sozialeko proiektuak gauzatzen dituzten entitateekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbatekoak ere, proiektu horiek finantzatzeko erabili badira. Horrekin batera, kuota likidoari zenbateko horien ehuneko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute.

3. atal horretan araututako onura fiskalak ez zaizkie inola ere aplikatzekoak izanen pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboei. Horiei, jarduera ekonomikoak egin nahiz ez, 2. atala aplikatuko zaie.

4. atalean ezartzen da bateraezinak direla xedapen gehigarriko onura fiskalak eta 1/1996 Foru Legearen artikuluetan jaso diren gainerakoak. Onura fiskal hauek baldintza batzuk bete beharko dituzte. Halatan, xedapen gehigarri horren 5. atalean xedatzen da ekarpenen eta dohaintzen entitate onuradunek baldintza hauek bete beharko dituztela aurreko 2. eta 3. ataletan aurreikusitako onura fiskalak aplikatzeko:

a) Behar diren egiaztagiriek frogatu beharko dute ekarpenak eta dohaintzak egiazkoak direla, eta benetan erabili direla “konpromiso sozialeko proiektu” bat gauzatzeko.

b) Emandako egiaztagirien edukia jakinarazi beharko diote zerga arloko administrazioari, tributuaren gaineko arauetan ezarritako eredu eta epeekin.

Xedapen gehigarri berriak 2013ko urtarrilaren 1ean hasiko diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Bestetik, foru lege proiektuak betetzen ditu Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 158. artikuluan Osoko Bilkuran irakurketa bakarraren prozeduraren bidez tramitatzeko ezartzen diren baldintzak, onetsi eta argitaratzea presakoa baita, gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren eta berdintasunaren arloko jardueretarako zenbait proiektu, dagoeneko abian direnak, garatzen laguntzeko lehenbailehen. Gainera, aski arau soilak da, Parlamentuan prozedura horren bidez eztabaidatu eta tramitatzeko modukoa.

Hori dela eta, eskatzen da Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarraren adostasunarekin, Osoko Bilkuran zuzenean eta irakurketa bakarrean tramitatzeko erabaki dezala, zuzenketak aurkezteko aukera galarazi gabe betiere.

Artikulu bakarra. Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzea.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzen zaio, testu hau izanen duena:

Hamargarren xedapen gehigarria. "Konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzen duen proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak.

1. Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua eman ahal izanen die gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren eta berdintasunaren arloko jarduerak gauzatzen dituzten proiektuei, ezarritako baldintzak, eraginkortasun, efizientzia eta gardentasunekoak, betetzen badituzte.

"Konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua ematen duen ebazpenean zehaztuko da irabazimorik gabeko zein entitatek gauzatuko duen kasuan kasuko proiektua, bakarka nahiz beste batekin edo batzuekin elkarlanean.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako kontseilariak foru agindu bidez zehaztuko ditu aipatutako baldintzak, eraginkortasun, efizientzia eta gardentasunekoak, bai eta "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzeko prozedura ere.

2. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak eskubidea izanen dute dohaintzan emandako zenbatekoen ehuneko 40 kentzeko zergaren kuotari, kopuruak ezeztatzeko, garbiak eta soilak baldin badira, baita aurreko atalean aipatutako entitateekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbate-

koen portzentaia bera ere, proiektu horiek finantzatzeko erabili badira.

Kenkarien oinarria Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 64. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen den mugaren ondorioetarako kontatuko da.

3. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak diru-dohaintzak egiten badituzte, ezeztatzeko, garbiak eta soilak, edo, aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren lankidetzaren hitzarmenen ondorioz, diru-kopuruak eskudirutan ordaintzen badituzte aipatutako proiektuen finantzaketarako, honako onura fiskal hauek izanen dituzte:

a) Zerga-oinarria zehazteko, ordaindutako zenbatekoak kengarritzat hartuko dira.

b) Horrez gain, kuota likidoari zenbatekoaren ehuneko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute.

Zerga-oinarriari kendu ahal zaion zenbatekoak ez ditu muga hauetako altuena gaindituko:

– Murrizketa hori eta, kasua bada, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluek aipatzen dituztenekin egintza aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30.

– Negozio zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 3.

Bestetik, kuotaren kenkaria sozietateen gaineko zergari buruzko foru legearen 72. artikuluan 3., 6. eta 7. idatz-zatietan ezarritako araubidearen eta mugen arabera aplikatuko da.

Atal honetan araututako onura fiskalak ez zaizkie inola ere aplikatuko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboari.

4. Bateriaezina izanen da xedapen gehigarri honetan araututako onura fiskalak eta foru lege honetan ezarritako gainerakoak zenbateko berberetarako jasotzea.

5. Aurreko 2. eta 3. atalean aurreikusitako onura fiskalak aplikatzeko, ekarpenen eta dohaintzen entitate onuradunek beharrezkoak diren beharrezkoak dituzte:

a) Behar diren egiaztagiriek frogatu behar dute ekarpenak eta dohaintzak egiazkoak direla, eta benetan erabili direla "konpromiso sozialeko proiektu" bat gauzatzeko.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako kontseilariak foru agindu bidez arautuko ditu entitate onuradunek luzatu beharreko egiaztagiri horien edukia eta ezaugarriak.

b) Emandako egiaztagirien edukia jakinarazi beharko diote zerga arloko administrazioari, tributu-tuen gaineko arauetan ezarritako eredu eta epeekin.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Foru Lege proiektua, iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzkoa.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena, iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei Foru Lege proiektuari buruzkoa. Proiektu hori 2012ko azaroaren 16ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2013ko otsailaren 26an eta martxoaren 7an eta 14an egindako bileretan onetsia.

Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Iruzur fiskalaren aurkako borrokan gogor ekiteko, legegintzako hainbat neurri onestea du xede foru lege proiektu honek. Ez dago zalantzarik, edozein ekonomia ezkuturen aurkako borroka, orokorrean, eta iruzur fiskalaren aurkako, zehazki, izan behar dela Zerga Administrazioen jarduketan gidatuko duen argi nagusietako bat, eta areago krisi ekonomikoaren une hauetan, non bereziki nabaria den diru-sarreraren publikoen gutxitzea.

Iruzur fiskalak oinarrizko hiru zerga printzipioen aurka egiten du, orokortasunaren, berdintasunaren eta justiziaren aurka. Gastu publikoen sos-

tenguan guztiek hartu behar dutela parte adierazten du orokortasunaren printzipioak. Bakoitzak bere gaitasun ekonomikoaren arabera ordaindu beharri lotzen zaio berdintasunaren printzipioa. Azkenik, zerga sistema baten justizia aurreko bi printzipio horien konbinazioan oinarritzen da, ekitatearekin eta progresibotasunarekin batean. Begi bistakoa da herritar eta entitate juridiko batzuek ez badituzte beren zerga betebeharrak betetzen, sistema fiskala ez dela zuzena eta zama fiskala bidezkoa ez.

Iruzur fiskalak kalte handia eragiten dio gizarteari; izan ere, iruzurgileek Ogasun Publikoan egiten ez dituzten ekarpenen ondorioz, gainerako herritarrek zerga gehiago ordaindu behar dituzte edo zerbitzu publiko gutxiago jaso, baliabideak gutxitzen direlako. Gainera, ezkutuko ekonomiak eta iruzur fiskalak kalte egiten diete beren betebeharrak betetzen dituzten enpresei, bidegabeko lehia handia eragiten dietelako maiz.

Iruzur fiskalaren aurkako borroka orokorra izan behar du, ahal diren tresna guztiak erabili behar dira eta iruzur mota guztiak jarri behar dira begira-puntuan: ohikoenak eta berriak, norberak egiten duen iruzurra eta sareen bitartez egiten dena, askotan beste delitu batzuei lotua, hala nola diru zuritzeari edo kapital-ihesari.

Foru Komunitateko Zerga Administrazioa borroka horretan buru-belarri ari bada ere, arlo horretan jaso den esperientziagatik eta iruzurgileen jokabideetan ikusi diren aldaketengatik, komenigarria da hura tresna berritzailez hornitzea, esparru guztietan ondorioa izan dezaten: kudeaketan, ikuskapenean, diru-bilketan eta zigor arloko jurisdikzioan

Ogasun Publikoaren aurkako delituak jazartzen direnean.

Egungo krisi egoeran, baliabide publikoen gutxitzeak inoiz baino beharrezkoago egiten du iruzur fiskalaren aurkako borroka. Helburu horrekin, foru lege proiektuak hainbat neurri diseinatzen ditu, hiru helburu lortzera bideraturik:

a) Diru-sarrera publikoen gutxitze garrantzitsuen iturri gisa atzeman diren iruzur mota batzuen aurka egitea. Horrela, besteak beste, zerga erantzukizunarekin, hartzekodunen konkurtsoekin eta enpresen oinordetzarekin zerikusia dutenak.

b) Zerga-kreditua bermatzen duten arauak hobetzea, haiek eguneratzeko edo behar bezala interpretatzen argitzeko, segurtasun juridikoa handitzearren. Esate baterako, aldaketak preskripzio epean eta etenduran, eta enbargoetan.

c) Kautelazko neurriak hartzea Ogasunaren aurkako ustezko delituetan, bai eta erabiltzeko debekuak ere.

Foru lege honek bost artikulua eta azken xedapen bat ditu.

Lehen artikulua Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra aldatzen du. Aldaketak era askotako gaiei buruzkoak dira. Zerga erantzukizunaren figurari dagokionez, aipagarria da erantzukizun subsidiarioaren kasu berri bat sortu dela, egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak ukituko dituen atxikipenen autolikidazioak edo zerga ondorioen aurkezten dituztenean diru-sarrerarik egin gabe, behin eta berriz eta zerga betebeharra betetzeko benetako asmorik gabe. Erantzukizun kasu hori behar bezala mugatzearen definitu dira autolikidazioak behin eta berriz aurkeztearen kontzeptua, autolikidazioak diru-sarrerarik egin gabe aurkeztearena eta betebeharra betetzeko benetako asmorik ez izatearena.

Enpresa oinordetzari dagokionez, desegin eta likidatutako sozietateek bete gabeko betebeharren ordainetarako likidazio kuotaren balioa handituko da: likidazio kuotaren zenbatekoarekin ordaintzeaz gain, desegite dataren aurreko lau urteetan jasotakoaren mugaraino ordainduko dute, baldin eta jasotakoak betebeharren ordaina izan beharko lukeen sozietatearen ondarea gutxitu badu. Hau da, enpresa desegin aurreko bi urteetan bazkideek jasotakoaren gaineko erantzukizuna ere izanen du, baldin sozietatearen ondarea gutxitu badute. Neurri horren bidez, galarazi nahi da bazkideek likidazio aurreko eragiketen bidez sozietatearen ondarea banatzea eta, hartara, likidazioaren kuota oso urria izatea edo ez izatea. Gainera, zerga betebeharren eskualdaketa modu berritzaile bate-

an arautu da Nafarroan sozietateak eta nortasun juridikoa duten entitateak azkendu edo desegiten direnean. Likidaziorik gabeko desegitea, eskuarki, enpresa berregituratzeko kasuei buruzkoa da, hala nola bat-egiteak, zatiketak eta aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorrak. Kasu horietan, azkentzen diren entitateen betebeharrak haien oinordeko diren pertsona edo entitateei, edo eragiketaren onuradun direnei eskualdatuko zaizkie: sozietate bereganatzaileei edo zatiketaren onuradunei. Aipatu behar da bete gabeko betebeharren eskualdaketak nortasun juridikoa duten entitateengan ere baduela eragina, nahiz sozietateak ez izan. Gainera, sozietateen eta nortasun juridikoa duten entitateen oinordekoek, haiek desegin edo likidatu badira edo likidaziorik gabe desegin, entitate deseginaren zehapenen erantzule izanen dira eta, zein den kasua, likidazio kuotaren eta bazkideek desegite dataren aurreko bi urteetan jasotakoaren mugaraino, baldin eta jasotakoak betebeharrari aurre egin beharko liekeen sozietatearen ondarea gutxitu badu.

Preskripzio arloan, bi berrikuntza garrantzitsu daude. Alde batetik, preskripzioa kontatzeko arauak erantzukizun kasuetara egokitu dira. Zehazki, preskripzio epearen hasiera zehazten da erantzule solidario eta subsidiarioen kasuan. Erantzule solidarioen kasuan: zordun nagusiaren borondatezko ordainketa epea bukatzen denetik hasiko da kontatzen. Erantzule subsidiarioen kasuan: zordun nagusiari edo edozein erantzule solidariari egindako azken diru-bilketa jakinarazten zaionetik. Bestetik, berrikuntza hauek egin dira preskripzioaren etenduraren esparruan:

– Administrazioak zerga-betebeharraren elementu guztietara edo batzuetara zuzendutako akzioak eteten du preskripzioa. Hau da, zerga betebeharraren elementu baten preskripzioa etenik, betebeharraren guztiaren preskripzioa eteten da.

– eta hori, nahiz eta hasieran Administrazioaren jarduna beste zerga-betebeharrak batera zuzendu subjektu pasiboaren aitortzen okerraren ondorioz. Hauxe da arrazoiak: tributudunak okerreko zerga aitortpena egin izanaren ondorioz, Administrazioak betebeharraren preskripzioa eten eta, gero, zerga betebeharra beste bat zela frogatuz gero, azken horren preskripzioa ere eten egiten da.

– preskripzioa beste bi kasutan etenen da: zordunaren konkurtsoa deklaratzeko denean eta zerga zorra kobratzeko akzio zibilak edo penalak erabiltzen direnean.

– preskripzio epea tributudun batentzat etendukoan, etenduraren eragina gainerako tributudunen-tzat ere bada, erantzuleak barne.

– auzi, konkurtso edo legezko beste arrazoi batzuegatik zordun nagusiarentzat edo erantzule-etako batentzat preskripzio epea etenez gero, gainerako tributudun solidarioentzat ere etenen da, erantzuleak beste batzuk izan edo zordun nagusia bera izan. Preskripzioa eten izanak ez du galarazten bidezko kobrantza akzioek aurrera jarraitzea.

Kautelazko neurrien birmoldatze garrantzitsua ere egin da.

Hauek dira berrikuntza nagusiak:

a) Kautelazko neurri berriak hartu dira, hala nola, ondasun edo eskubideak besterendu, kargatu edo erabiltzeko debekua, eta portzentaje baten atxikipena, enpresek kontratistei eta azpikontratistei ordainduz gero.

b) Zilegi da kautelazko neurriak hartzea prozeduraren edozein unetan: Administrazioak, arrazoi-etan oinarrituta, behar adina frogatzen duenean aginduan adierazitako kasuak eta mugak gertatu direla (zerga kreditua ez ordaintzeko arrazoizko zantzuak, proportzionaltasuna, hertsiki beharrezkoa den zenbatekoa, edo konpontzeko zailak edo konponezinak diren kalteak sortzerik gabe).

c) Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik prozesu judiziala abiatuta ere, Zerga Administrazio-oko organo eskudunak kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu. Kasu horretan, neurria jakinaraziko zaie interesdunari, Fiskaltzari eta organo judizial eskudunari.

Enbargoen esparruan, bi aldaketa garrantzitsu egin dira. Lehenik, kreditu entitateetako ondasun eta eskubideen enbargo-eginbidean identifikatu gabeko beste ondasun eta eskubide batzuetara zabaltzen ahalko da, kreditu entitatean gordailututa badaude eta ez, orain arte gertatzen zen moduan, enbargo agindua igorri zeneko bulegoan edo sukurtsalean bakarrik.

Bigarrenik, neurri egiatan berritzailea ezarri da. Akzioak edo partaidetzak enbargatuta dituzten sozietateen ondasun higiezinak baliatzeko debekua ezartzen ahalko du Zerga Administrazioak. Horrela egin ahal izateko, akzio edo partaidetzen titularrak den tributudunak sozietatearen kontrol efektiboa izan behar du.

En otro orden de cosas, se amplían las competencias de la Administración tributaria en los procesos de delito fiscal. Delituaren instrukzioa jurisdikzio penalera iraganik ere, Nafarroako Zerga Ogasuneko diru-bilketaren organoek, agintari judizialak gainbegiratura, eskumena izanzen dute delituari atxikitako diru-kopuruak ordaintzeko izan litekeen ondarea ikertzeko. Organo horiek delituarekin zerikusia duten pertsonen ondare

egoerari buruzko txostenak egin ahalko dituzte, eta kautelazko neurriak hartu.

Atzerrian dauden ondasun eta eskubideen gainean informatzeko betebeharrak barnean hartuko ditu hiegiezinak nahiz horien gaineko eskubideak.

Bigarren artikulua 4. idatz-zatia erantsi dio Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren 48. artikuluari, eta zehazten du tributuduna konkurtsoan izanez gero, masaren aurkako kreditutzat jotzen diren zerga zorrak ezin izanzen direla geroratu. Neurri horren bidez, tributudaren ordainketa atzeratzeko jokabideak moztu nahi dira hartzekodunen konkurtsoetan.

Hirugarren artikulua beste idazketa bat ematen dio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 44. artikuluari. Artikulu horrek justifikatu gabeko ondare gehikuntzaren figura arautzen du. Aldaketak hirugarren lerroaldea eransten du, eta xedatzen, betiere, atzerrian diren ondasun eta eskubideak, aipatu aitorten informatiboan epe barrenean deklaritzen ez direnak, justifikatu gabeko ondare gehikuntzat hartuko direla. “Betiere” horrek zorrotz xedatu nahi du subjektu pasiboari ez zaiola onartuko aitortu gabeko ondasun horiek preskribatuta dauden zergaldietan bereak zitueta frogatzea. Horrela, zeharka, aginduak iuris et de iure presuntzioa ezartzen du aitortu gabeko ondasun horien gainean, halako moduan non justifikatu gabeko ondare gehikuntza gisa konputatuko baitira beti, eta subjektu pasiboak aurkez dezakeen frogak ezin izanzen du presuntzio hori ahuldu. Gainera, agindua ezartzen du, erregularizatu daitekeen preskribatu gabeko zergaldi zaharreneko likidazio oinarri orokorrean sartzeko.

Laugarren artikulua 5. idatz-zatia erantsi dio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 9. artikuluari. Aginduaren ratioa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasukoa bera da. Betiere, pertsona juridikoen ondasun eta eskubideak, atzerrian izan eta aipatu aitorten informatiboan epe barrenean aitortu ez direnak, aitortu gabeko errenten kargura eskuratu direla ulertuko da. Iuris et de iure presuntzioa ezartzen da aitortu gabeko ondasun horien gainean, halako moduan non aitortu gabeko errenten kargura eskuratu direla ulertuko baita beti, eta subjektu pasiboak aurkez dezakeen frogak ezin izanzen du presuntzio hori desegin.

Bosgarren artikulua puntualki aldatzen du Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea. Eta hori, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariari gaikuntza emateko

asmoz, prozedura informatiko egokiak arautu ditzen, fundazioek behar bezala bete ditzaten aurrekontu eta finantza arloko informazioa emateko duten betebeharra, legez behartuta baitaude, eta Zerga Administrazioak jarraipen eta kontrol hobea egin ahal dakizkien.

Azkenik, foru lege honek jasotzen du iruzuraren aurka borrokatzeko lan batzorde iraunkor bat eratuko dela, Nafarroako Gobernuak, parlamentutaldeen, sindikatuak, bazterketarik gabe, eta beste entitate sozioekonomiko batzuek osatua, eta haren xedea izanen da arlo horretako jarduketak aztertzea, proposamenak egitea eta iruzur fiskalaren aurka borroka egiteko diseinatzen diren jarduketak planak eta neurriak aztertu eta haien jarraipena egitea.

Halaber, zenbait xedapen gehigarritan jarduketa-konpromiso desberdinak zehazten dira, iruzurra pertsegitzeko eta ezkutuko ekonomiaren adierazlea murrizteko helburuak lortzeko tresnak abian jartzeko aldera.

Lehenengo artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrerako ondorioekin, jarraian ematen diren Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko aginduek honelako testua izanen dute:

Atal berria. 9.1.b) artikulua.

“b) Eskubidea du itzul dakizkion zuzenez kontra egindako diru sarrerak eta ofizios tokatzen direnak, eta orduan foru lege honetako 50.2.c) artikulua aurreikusten duen berandutza interesa paga dakion, hartarako errekerimendurik egin gabe ere.

59. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Nafarroako Zerga Ogasunak ordainketa atzeratu egiten du, baldin eta subjektu pasiboak ez baditu bere tributu-betebeharrak egunean; hain zuzen ere, betebeharrak bete arte atzeratuko du ordainketa.

Itzulketa horiei dagokienez, subjektu pasiboak Nafarroako Foru Ogasunarekiko bere tributu-betebeharrak egunean ez dituen epeetan, ez da berandutza-interesik sortuko. Era berean, prozeduran subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen gainarako atzerapen guztiak ez dira kontuan hartuko sortutako berandutza-interesen epea kontatzeko orduan.”

Bat. 29.3. artikulua.

“3. Foru lege honen 30.artikuluko 4.idatz-zatian xedatutakoa izan ezik, zordunak borondatezko ordainketa egiteko aldian daukan zerga-zor osoraino iritsiko da erantzukizuna.

Borondatezko ordainketa egiteko epea iragan, eta erantzuleak diru-sarrerarik egin ez badu, ordainarazpen aldia hasiko da, eta zorra premiamendu bidez eskatuko da, bidezkoak diren errekaru eta interesekin batera.

Erantzukizuna ez da zehapenetara iritsiko, foru lege honetan edo beste batean ezartzen diren salbuespenekin.

Erantzukizuna zehapenetara iristen den kasuetan, zordun nagusiak 71.3 artikuluan aurreikusitako murrizketarako eskubidea izan badu, zordun nagusiari murrizketa aplikatu gabe bidezkoa den zenbatekoa izanen da zordun nagusiaren zorra, eta adostasuna emanen zaio erantzuleari erantzukizun-deklarazioaren proposamenen.

Aipatu 71.3 artikuluan aurreikusitakoa da adostasunagatiko murrizketa. Erantzuleak lortutako murrizketa besterik gabe eskatuko zaio edozein erreklamazio edo errekurso aurkeztuz gero erantzukizun-deklarazioaren akordioaren aurka, deribazioaren bidez kotasunean edo likidazio deribatuetan oinarrituta.

Idatz-zati honetan aurreikusitako murrizketa ez zaie aplikatuko 30.4 artikuluan zorrak ordaintzeko aipatu erantzukizun kasuei.”

Bi. 29.4 artikuluko azken leerroialdea.

“Dena dela, 30.4. artikuluan ezarritako kasuetan, aurrekontu horrek hartzen dituen likidazioak ezin izanen dira aurkatu, erantzukizunaren zenbateko osoa baizik. Orobat, aipatu artikuluan aurreikusitako kasuetan, ez da 70.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko, ateratzen den zenbateko deribatua zorretatik edo tributu zehapenetatik etorri.”

Atal berria. 30.4.a) artikulua.

“a) Ordaintzeko betebeharra duenaren ondusun eta eskubideak ezkutatzea edo eskualdatzea eragiten duten edota horretarako laguntza ematen dutenak,

Zerga Administrazioaren jarduna eragozteko xedez. Espresuki sartzen dira epigrafe honetan produktu edo zerbitzu bat erosten duten pertsona fisikoak, balio erantsiaren zerga ordaintzen ez badute.”

Hiru. 32. artikulua, 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Langile, profesional edo beste enpresaburu batzuei atxiki beharreko kopuruen edo jasanarazi beharreko tributuen ondoriozko tributu-zorren erantzule subsidiarioak izanen dira zor horiek aitortzera eta diru-sarrera egitera behartutako pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak, jardueraren jarraipena izanik,

tributu kontzeptu horiengatik diru-sarrera gabeko autolikidazioak behin eta berriz aurkezten direnean eta egiaztatzen ahal denean aurkezpen horrek ez duela benetako asmorik autolikidazioaren xedeko zerga betebeharra betetzeko.

Autolikidazioak behin eta berriz aurkeztu direla ulertuko da baldin eta, urte natural berean, elkarren segidan edo ez, aurkeztu behar direnen erdiak edo gehiago diru-sarrerarik gabe aurkezten badira, geroratzeko edo zatikatzeko eskaera egin edo ez, eta aurkezpena epe barrenean edo epetik kanpo egina izan.

Ondorio horietarako, luzatzeko edo zatikatzeko eskaera eginik, baimen hori emateko ebazpena duten autolikidazioak ez dira konputatuko, non ez diren gero bete gabe uzten, noiznahi betetzen ez direla ere, eta behar bezala formalizatutako bermearekin eman direnak ez dira inoiz konputatuko.

Erantzukizun honen ondorioetarako, autolikidazioak diru-sarrerarik egin gabe aurkeztutzat joko dira bigarren idatz-zatian aipatu urte naturaleko diru-sarreretatik guztira ateratzen den zenbatekoa ez denean sartu beharreko kuota autolikidatuaren guztirakoaren ehuneko 50 baino handiagoa, nahiz diru-sarrera partzialak izan aurkeztu diren autolikidazio guztietan edo batzuetan.

Lehen lerroaldean aipaturiko betebeharrak betetzeko benetako asmorik ez dagoelako presuntzioa egonen da kasu honetan: hirugarrenen titulartasuneko kredituak ordaindu badira, zeinen mugaeguna geroagokoa baita xedapen honetan ezarritako erantzukizunak bere barrenean hartzen dituen zerga betebeharrak sorrarazi edo galdagarriak gertatu ziren eguna baino, eta zeinek lehen-tasunik ez baitute azken zerga-betebehar horien ondoriozko zerga-kredituen aldean”

Lau. 33.2. artikulua.

“2. Desegin eta likidatutako sozietateen edo entitateen kasuan, haien bete gabeko zerga betebeharrak bazkideei edo kapitaleko partaideei eskualdatuko zaizkie, zeinak haien erantzule solidario izanen baitira, esleitu zaien likidazio kuotaren eta desegin aurreko lau urteetan ondareagatik jaso duten eta horrenbestez betebehar horien erantzule izan beharko lukeen sozietate-ondarea gutxitu duen balioaren mugaraino, 30.4.a) artikuluan aurreikusitakoa galarazi gabe”

Bost. 33. artikulua, 3. idatz-zatia gehitzea.

“3. Sozietateak eta nortasun juridikoa duten entitateak likidaziorik gabe desegin edo azkentzen diren kasuetan, bete gabeko zerga betebeharrak haien oinordeko pertsona edo entitateei eskualdatuko zaizkie edo eragiketaren onuradun direnei.

Nortasun juridikoa duen entitate eta sozietate baten aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorreko edozein kasutan ere aplikatuko da arau hori”

Sei. 33. artikulua, 4. idatz-zatia gehitzea.

“4. Artikulu honetako 2. eta 3. idatz-zatietan aipatu sozietate eta entitateek egindako arau-hausteengatik izan daitezkeen zehapenak haien oinordekoei eskatzen ahalko zaizkie, idatz-zati horietan ezarritako moduan eta, zein den kasua, 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera zehaztutako balioaren mugaraino”

Atal berria. 55. artikulua.

“55. artikulua. Epeak.

Hamar urte igarota balio gabe geratuko dira ondoko eskubide eta akzioak:

- a) Administrazioak bidezkoa den likidazioaren bidez tributuzorria zehazteko duen eskubidea.
- b) Likidatutako tributuzorrien ordainketa eskatzeko akzioa.
- c) Tributuzehapenak ezartzeko akzioa.
- d) Okerreko diru-sarrerak itzultzeko eskubidea”

Zazpi. 56. artikulua, 2. idatz-zatia gehitzea. 56. artikulua gaur egungo edukia 1. idatz-zatia izanena da.

“2. Zordun nagusiak hamar eguneko epea izanen du borondatezko aldi ordaintzeko; epe hori bukatu, eta biharamunean hasiko da kontatzen erantzule solidarioei ordaintzeko betebeharra eskatzeko preskripzio epea.

Dena dela, erantzukizuna osatzen duten egintzak aurreko lerroaldean finkatutako epe ondotik gertatuz gero, egintza horiek gertatzen direnean hasiko da preskripzio epea.

Erantzule subsidiarioen kasuan, zordun nagusiari edo edozein erantzule solidarioi egindako azken diru-bilketa jakinarazten zaionetik hasiko da preskripzio epea kontatzen”

Zortzi. 57.1. artikulua.

“1. 55. artikuluko a), b) eta c) letretan aipatu preskripzio epeak kasu hauetan etengo dira:

- a) Tributudunak ezagutza formala duela, Zerga Administrazioaren edozein egintza dela medio, zerga betebeharraren elementu guztiak edo batzuk ezagutu, erregularizatu, ikuskatu, aseguratu, egiaztatu, likidatu eta diru-bilketa egiteko bada, nahiz egintza, hasieran, beste zerga betebehar baterako izan, tributudunaren okerreko aitortpenaren ondorioz.

Orobat, lehen aipatu jarduketek ez ezik, zehapen prozedura hasteak etengo ditu zehapenak ezartzeko preskripzio epeak.

b) Edozein eratako erreklamazio edo errekurtsioak aurkeztuta; erreklamazio edo errekurtsio horietan, tributudunak ezagutza formala duela, jarduketak eginda; zordunaren konkurtsoa deklaratu-ta; zerga zorra kobratzera bideratutako egintza zibil edo penalak erabilia; erruduntasun-testigantza jurisdikzio penalera igorrita edo salaketa Fiskaltzan aurkeztuta; baita administrazio prozedura geldiarazteko agintzen duen organo jurisdikzional baten komunikazioa jasota ere.

c) Tributudunak zorra ordaindu, likidatu edo autolikidatzera bideratutako edozein jarduketa dela medio”

Bederatzi. 57. artikulua, 3. idatz-zatia gehitzea.

“3. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioa aurkeztuta, egintza zibil edo penalak erabilia, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunera igorrita edo salaketa Fiskaltzan aurkeztuta edo prozedura geldiarazten duen komunikazio judiziala jasota eteten denean preskripzio epea, Administrazioak prozesu judiziala bukatzen duen edo geldialdia kentzen duen ebazpen irmoaren jakinarazpena jasotzen duenean hasiko da berriro preskripzio epearen kontaketa, edo espediente itzultzen duen Fiskaltzaren jakinarazpena jasotzen denean.

Preskripzio epea zordunaren konkurtso deklarazioagatik etenez gero, konkurtsoa amaitzeko ebazpen judiziala irmo bihurtzen denean hasiko da berriro kontaketa. Hitzarmen bat onetsi bada, onesten den unean hasiko da berriro preskripzio epea, haren menpe ez dauden tributu-zorren zat. Konkurtso hitzarmenaren menpeko zerga zorrei dagokienez, zordunari eskatzen ahal zaizkionean hasiko da berriro preskripzio epearen kontaketa.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko Zerga Administrazioak ordainketa eskatzeko duen eskubidearen preskripzio epeari, etendura administrazioarekiko auzibidean erabaki ez bada”

Hamar. 57. artikulua, 4. idatz-zatia gehitzea.

“4. Tributudunaren preskripzio epea etendakotan, etenduraren eragina gainerako tributudunentzat ere izanen da, erantzuleak barne. Dena dela, betebeharrak mankomunatu bada eta tributudunetako bati baino ez bazaio dagokion zatia erreklamatzeko, epea ez zaie gainerakoei etengo.

Ordaintzera behartutako baten kargurako zor likidatu bat baino gehiago izatera, zeri buruzko zorra den, haren preskripzioa bakarrik etengo da.

Zordun nagusiari edo erantzuleetako bati buruz auzia, konkurtsoa edo legezko beste edozein arrazoi dela-eta, 55.b) artikuluko preskripzio epea etenez gero, eragin bera izanen du solidarioki ordaintzera behartutako gainerako subjektuentzat, erantzuleak beste batzuk edo zordun nagusia izan, bidezko kobrantza egintzek jarrai dezaten galarazi gabe”

Hamaika. 70.6. artikulua.

“6. Zerga zehapenen betearazpena modu automatikoki etenen da, behar bezainbesteko bermea aurkeztu eta garaiz eta behar bezala aurkeztuta bidezkoa den errekurtsioa edo administrazio erreklamazioa zehapen horien aurka, eta ez dira betearaziko administrazio bidean irmo bihurtu arte.

Idatz-zati honetan xedatutakoa erantzukizun deribazioaren xedeko zerga zehapenak eteteko aplikatuko da, bai subjektu arau-hausleak zehapena errekurritzen duenean, bai, 29.4 artikuluan xedatutakoa erabilia, erantzuleak zehapena errekurritzen duenean. Agindu hau dela-eta, ez da inoiz besterik gabe etengo deribazioaren xedeko zerga zorra.

30.4 artikuluan aurreikusitako zorrak ordaintzeko erantzukizunak ere ez dira etengo agindu honen arabera”

Atal berria. 71.1.b) artikulua.

“b) Zerga Administrazioaren jarduketari gogor edo uko egitea nahiz aitzakiak bilatzea, edo haren ikerlanari oztopoak jartzea.

Inguruabar hori gertatzen bada arau-hauste larri bat egin denean, portzentajea ehuneko 20tik ehuneko 60ra bitartean handituko da.

Inguruabar hori gertatzen bada arau-hauste soil bat egin denean, zehapenaren zenbateko handituko da gehieneko zenbatekoaren ehuneko 20tik ehuneko 40ra bitartean.”

Atal berria. 71.3. artikulua.

“Zerga arloko arau-hauste larrien zehapenen zenbatekoa ehuneko 30 murriztuko da, subjektu arau-hausleak edo, kasua bada, erantzuleak bere adostasuna adierazten badu egiten zaizkion erregularizazio eta zehapen proposamenekin”

Atal berria. 72. artikulua, 8. idatz-zatia gehitzea.

“8. Artikulu honetan aurreikusitako zehapen bakoitzaren zenbatekoa, behin irizpide graduatzaileak hala behar baldin bada aplikatuta, ez da inoiz 200 euro baino gutxiagokoa izanen, nahiz eta egon daitezkeen kasuak zeinetarako kopuru hori

baino handiagoak diren gutxieneko zenbatekoak ezartzen direneko kasuak ezertan galarazi gabe.”

Atal berria. 88. artikulua.

“88. artikulua. Ofiziozko itzulketak.

Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko ditu bidezko diren zenbatekoak, kontuan hartuta zer aurreikusten duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudi berariazkoak, sozietateen gaineko zergarenak eta balio erantsiaren gaineko zergarenak. Iragan baldin bada tributu bakoitzaren araudian ezarritako epea, eta, edozein kasutan, sei hilabeteko epea, eta, Zerga Administrazioari egotzekoa den motibo bat tarteko, ez bada agindu itzuli beharrekoa pagatzea, zergadunak eskubidea izanen du 50.2.c) artikuluan araututako berandutza interesa kobratzeko, horretarako errekerimendurik egin beharrik gabe. Horri dagokionez, interes hori sortuko da Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egiteko duen epea bukatzen denetik dagokion itzulketa pagatzea agintzen den egunera arte.

59. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Nafarroako Zerga Ogasunak ordainketa atzeratu eginen du, baldin eta subjektu pasiboak ez baditu bere tributu-betebeharrak egunean; hain zuzen ere, betebeharrak horiek bete arte atzeratuko du ordainketa.

Ez da berandutza-interesik sortuko subjektu pasiboak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko betebeharrak egunean eduki ez dituen epeetan. Era berean, ordainketa-prozeduran subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen gainerako atzerapen guztiak ez dira kontuan hartuko berandutza-interesen sortzapen-epea kontatzeko orduan.”

Hamabi. 118. artikulua.

“118. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Diru-bilketarako eskuduna izanik, zorren kobrantza segurtatzeko, Administrazioak behin-behineko kautelazko neurriak hartu beharko ditu honako honen arrazoizko zantzuak daudenean: hala egin ezean kobrantza ezinezkoa izan litekeela edo kobratzeko zailtasun larriak leudekeela.

Kautelazko neurria behar bezala jakinarazi beharko zaio ukituari, haren aplikazioa justifikatzen duten arrazoiak espres aipatuta.

2. Neurriek galarazi nahi den kaltearen proportziokoak izan beharko dute, eta zorren kobrantza segurtatzeko doi behar den zenbatekoa izanen dute. Konpontzea zaila edo ezinezkoa den kaltea eraginen luketenak ez dira inoiz hartuko.

3. Kautelazko neurri hauek hartzen ahalko dira:

a) Zerga itzulketen ordainketa edo Foru Komunitateak egin beharreko beste ordainketa batzuk atxikitzea. Zerga itzulketa osorik edo zati bat kautelaz atxikitzeko, interesdunari jakinarazi beharko zaio itzulketaren erabakiarekin batera.

b) Ondasun eta eskubideen prebentziozko embargo; halakorik bada, aurreneurritzko idatzoharra eginen da.

c) Ondasun edo eskubideak besterendu, kargatu edo erabiltzeko debekua.

d) Haien jarduera nagusiari dagozkion obren exekuzioa edo zerbitzuak ematea kontratatu edo azpikontratatu duten enpresek kontratistei edo azpikontratistei egindako ordainketen portzentaje bat atxikitzea, langileei, profesionaleri edo beste enpresaburu batzuei atxiki beharreko zenbatekoei edo jasanarazi beharreko tributuei dagozkien zerga betebeharrak bermatzeko, kontratazioaren edo azpikontratazioaren xedeko obrei edo zerbitzuei dagokien zatian.

e) Legez aurreikusita den beste edozein.

4. Kudeaketa, ikuskapen eta diru-bilketaren prozedurak tramitatzen direnean hartzen ahalko dira artikulua honetan araututako kautelazko neurriak, Zerga Administrazioak arrazoibidez eta behar adina egiaztatzen ahal duenetik 1. idatz-zatian ezarritako kasuak direla eta 2. idatz-zatian adierazitako mugak betetzen direla.

5. Kautelazko neurriek ez dute ondorioz izanen haiek hartu eta sei hilabeteko epean, salbu kasu hauetan:

a) Enbargo bihurtzen direnean premiamendu prozeduran edo kautelazko neurri judizialean, kautelazko neurria hartzen den egunetik izanen baitute eragina.

b) Haiek hartzera eraman zuten inguruabarrak desagertzen direnean.

c) Interesdunak eskatuta, nahikotzat jotzen den beste berme batek ordeztzen duenean.

Beti ere, kautelazko neurriak kendu egin beharko dira tributudunak kreditu entitate baten edo elkarrenganako bermedun sozietate baten abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria aurkeztuta, kautelazko neurriaren zenbatekoa kobratuko dela bermatzeko. Tributudunak borondatezko epean ordaintzen badu zerga betebeharra (hori betetzeko zen kautelazko neurria) diru-sarreraren etendurarik gabe, aurkeztutako abalaren gastuak ordaindu beharko ditu Zerga Administrazioak.

d) Arrazoitutako erabaki baten bidez epe hori luzatzen denean, baina ez sei hilabete baino gehiago.

6. Diruaren eta salgaien prebentziozko enbargoa erabakitzen ahalko da, eta establezimendurik gabe egindako irabazizko jarduera aitortu gabeengatik eskatu beharreko zerga zorra ordainduko dela segurtatzeko adinakoa izanen da. Orobat, Zerga Administrazioari aurretik aitortu gabeko ikuskizun publikoetako diru-sarreraren prebentziozko enbargoa erabakitzen ahalko da.

7. Egiaztatzeko edo ikertzeko ikuskatze prozedura bat dela-eta, salaketa edo kereila jarri denean Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik edo, delitu horrengatik, prozesu judiziala bideratu denean, Zerga Administrazioko organo eskudunak artikulua honetan araututako kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu, hamazazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa galarazi gabe.

Usteko delituaren ikerketa ez bada egiaztatzeko edo ikertzeko ikuskatze prozedura batetik sortu, Fiskaltzak gauzatutako ikerketa eginbideak hasi ondoren hartzen ahalko ditu Zerga Administrazio-ko organo eskudunak kautelazko neurriak edo, zigor arloko eginbideak hasi ondoren, halakorik bada.

Aurreko lerroaldeetan aipatu kasuetan, salaketan edo kereilan Zigor Kodearen 126. artikuluan aipatzen diren zenbatekoen ordainketaren balizko erantzule zuzeneko edo subsidiario gisa identifikatutako edozein subjektuen aurka bideratzen ahal-ko dira kautelazko neurriak.

Zerga Administrazioko organo eskudunak kautelazko neurria harturik, interesdunari, Fiskaltzari eta organo judizial eskudunari jakinaraziko zaie, eta hari eutsiko zaio azken horrek bidezko erabakia hartu arte, hura neurri jurisdikzional bihurtu edo kendu.”

Hamahiru. 122.1. artikulua.

“1. Zerga Administrazioak dakienean kreditu entitate baten bulego jakin baten edo beste pertsona edo entitate gordailuzain baten esku utzitako funtsak, baloreak edo bestelako ondasunak egon badaudela, haien enbargoa xedatzen ahalko du, bidezko den zenbatekoan, pertsona edo entitate horren identifikazio datuak eta kontu, gordailu edo eragiketa bakoitzaren egoera zehaztu beharrik gabe. Baloreak direnean, pertsona edo entitate gordailuzainak enbargoaren unean emandako informazioaren arabera balore horiek homogeenak ez badira edo haien balioa aurreko artikulua 1. idatz-zatian adierazitako zenbatekoa baino han-

diagoa bada, oztopatuta gelditu behar direnak zehaztuko ditu diru-bilketaren organoak.”

Hamalau. 124. artikulua, 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Zerga Administrazioak sozietate baten ondasun higigarriak eta higiezinak erabiltzeko debekua erabakitzen ahalko du, diru-bilketaren prozedurak haren aurka egin beharrik gabe, tributudunari haren akzioak edo partaidetzak enbargatu zaizkionean eta hark duenean ondasun higigarri eta higiezin horien sozietate titularraren gaineko kontrol efektiboa, erabatekoa edo partziala, zuzena edo zeharkakoa, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako moduan eta nahiz behar- turik ez egon kontu bateratuak egitera. Erabiltzeko debekuaren aurreneurritzko idatzoharra egiten ahalko da jabetza erregistro eskudunean finkentzat irekitako orrian, dagokion aginduaren ondorioz, non erregistroko titularrak ez den beste baten aurkako kautelazko neurriaren balioa justifikatuko baita kontrol zerrenda izateagatik; aginduan berean zehaztuko da horren arrazoa.

Erabiltzeko debekuaren aurkako errekurtsoren oinarria neurri hori hartzeko egitatezko arrazoi- etako baten falta bakarrik izaten ahal da.

Neurria kenduko da tributudunaren partaide- tzen edo akzioen enbargoa azkentzen denean, edozein arrazoi dela-eta. Orobat, Zerga Adminis- trazioak erabiltzeko debekua kentzea erabakitzen ahalko du, hari eusteak konpontzeko zailak edo konponezinak diren kalteak, sozietateak behar bezala frogatuak, eragin ditzakeenean edo, inter- esdunak eskatuta, nahikotzat jotzen den beste berme batekin neurria ordeztzen denean.”

Atal berria. 142.1. artikulua.

“1. Tributudunek eta beren oinordekoek edo kausadunek eskubidea izanen dute Foru Komuni- tatearen Diruzaintzan egindako diru-sarrera ez bidezkoak (zerga-zorrak ordaintzean) itzultzeko, eta 50.2.c) artikuluan araututako berandutza inter- esa aplikatuko da. Inoiz ere ez da itzuliko 66.7 artikuluan aurreikusitako kasuetan erantzukizune- tik libratzeko ordaindutako kantitateak.”

59. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Nafa- rroako Zerga Ogasunak ordainketa atzeratu egi- nen du, baldin eta subjektu pasiboak ez baditu bere tributu-betebeharrak egunean; hain zuzen ere, betebehar horiek bete arte atzeratuko du ordainketa.

Ez da berandutza-interesik sortuko subjektu pasiboak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko bete- beharrak egunean eduki ez dituen epeetan. Era berean, ordainketa-prozeduran subjektu pasiboari

egotz dakizkiokeen gainerako atzerapen guztiak ez dira kontuan hartuko berandutza-interesen sortzapen-epea kontatzeko orduan.”

Atal berria. 158.3. artikulua.

“3. Jarritako erreklamazioa onartzearen ondorioz lehen sartutako dirua itzuli behar baldin bada, interesatuak eskubidea izanen du dirusarrera egin zuen egunetik sorturiko berandutza interesak eskuratzeko.

59. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Nafarroako Zerga Ogasunak ordainketa atzeratu eginen du, baldin eta subjektu pasiboak ez baditu bere tributu-betebeharrak egunean; hain zuzen ere, betebeharrak bete arte atzeratuko du ordainketa.

Ez da berandutza-interesik sortuko subjektu pasiboak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko betebeharrak egunean eduki ez dituen epeetan. Era berean, ordainketa-prozeduran subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen gainerako atzerapen guztiak ez dira kontuan hartuko berandutza-interesen sortzapen-epea kontatzeko orduan.”

Hamabost. Hemeretzigarren xedapen gehigarria eranstea.

“Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Ondarea ikertzeko eskumenak, Ogasun Publikoaren aurkako delitu auzietan.

Ogasun Publikoaren aurkako delitu auzietan, eta Polizia Judizialaren unitateei dagozkien ahalmenak galarazi gabe, Nafarroako Zerga Ogasuneko diru-bilketaren organoek izanen dute eskumena, agintari judizialak gainbegiratuta, delituari atxikitako diru-kopuruak ordaintzeko izan litekeen ondarea ikertzeko.

Ondorio horietarako, 103., 104. eta 123. artikuluetan aurreikusitako ahalmenak erabiltzen ahalko dituzte, baita delituari lotutako pertsonen ondare egoerari buruzko txostenak egin eta 118. artikuluko 7. idatz-zatian aurreikusitako kautelazko neurriak hartu ere.

Jarduketa horien eta horietan izandako gorabehera eta emaitzen berri emanen zaio berehala zigor arloko epaileari, eta horrek ebatziko du hartutako neurriak berretsi, aldatu edo kendu behar diren.

Egiten diren jarduketak lege honetan eta bere garapeneko araudian aurreikusitakoaren menpe jarriko dira, epaileak beste jarduketa batzuk egitea erabakitzea galarazi gabe, Prozedura Kriminalaren Legearen 989. artikuluan aurreikusitakoaren babesean.”

Atal berria. Hemezortzigarren xedapen gehigarriko 1.c) eta 2.c) idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

“1.c) Atzerrian diren ondasun higigarriei eta higiezinei eta ondasun higigarrien eta higiezinen gaineko eskubideei buruzko informazioa, haien titularrak direlako.”

“2.c) Atzerrian diren ondasun higiezinei eta ondasun higigarrien eta higiezinen gaineko eskubideei buruz informatu beharra betetzen ez den kasuan, 5.000 euroko isun finkoa izanen da zehapena, aitorpenean agertu beharreko ondasun higigarri edo higiezin bati berari edo ondasun higigarri edo higiezin baten gaineko eskubide bati berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, baita modu ez osoan, zehaztu gabe edo faltsututa agertuta ere; gutxienez, 10.000 euro izanen dira.

Zehapena 100 eurokoa izanen da ondasun higigarri edo higiezin bati berari edo ondasun higigarri edo higiezin baten gaineko eskubide bati berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, eta gutxienez ere 1.500 eurokoa, aitorpena epetik kanpo aurkeztu bada Zerga Administrazioak errekerimendurik egin gabe. Modu berean, aitorpena baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoez bestelako moduz aurkeztea zehatuko da, baliabide horien bitartez egiteko betebeharra dagoenean.”

Hamasei. (KENDUTA).

Bigarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 4. idatz-zatia erantsi zaio Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren (uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuak onetsia) 48 artikuluari.

“4. Aurreko 2. idatz-zatian ezarritakoa galarazi gabe, tributudunaren konkurtsoaren kasuan, ezin izanen dira geroratu, ezta zatikatu ere, konkurtsoei buruzko legeriaren arabera masaren aurkako kreditutzat jotako zerga zorrak.”

Atal berria. Nafarroako Diru-bilketaren Erregelamenduaren (uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuak onetsia) 64. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Likidatutako tributu zorrak ordaintzea exijitzeko akzioa hamar urteren buruan preskribatuko da, borondatezko ordainketaren epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita.”

Hirugarren artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 44. artikulua ondotik ematen den testua izanen du. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

“44. artikulua. Justifikatu gabeko gehikuntzak.

“Zergadunak aitortutako errenta edo ondareekin bat ez datozen ondasun edo eskubideak izatea, aitortzea edo eskuratzea justifikatu gabeko ondare gehikuntzat joko da, baita ez dagoen zorrik zerga honen edozein aitortzean edo ondarearen gaineko zergan sartzea ere, edo erregistro ofizialetako liburuetan erregistratzea.

Zer zergalditan deskubritu, haren likidazio oinarri orokorrean sartuko dira justifikatu gabeko ondare gehikuntzak, salbu subjektu pasiboak behar adina frogatzen badu ondasun eta eskubideen titularrak zela preskripzio epea baino lehenagotik.

Beti ere, justifikatu gabeko ondare gehikuntzat joko dira, eta erregulariza daitekeen preskribatu gabeko zergaldi zaharreneko likidazio oinarri orokorrean sartuko dira, ondasun edo eskubideak izatea, aitortzea edo eskuratzea haien titularrak horretarako emandako epean bete ez badu informatzeko betebeharra, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen dena.

Hala ere, aurreko lerrokan aurreikusitakoa ez da aplikatuko, baldin eta subjektu pasiboak egiaztatzen badu ondasunen edo eskubideen titulartasuna bat datorrela deklaraturako errentekin, edota beste zergaldi batzuetan lortutako errentekin, beste zergaldi horietan ez baldin bazeukan zerga horren edo sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo izaerarik Espainiako lurraldean.”

Laugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen manu hauek honela geratuko dira idatzita:

Atal berria. 9. artikulua, 5. zenbakia gehitzea.

“5. Betiere, aitortu gabeko errenten kargura eskuratutzat joko dira, eta erregulariza daitekeen preskribatu gabeko zergaldi zaharrenari egotziko zaizkio, haien subjektu pasiboak horretarako emandako epean bete ez badu informatzeko betebeharra, Tributuei buruzko abenduaren 14ko

13/2000 Foru Lege Orokorraren hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen dena.

Hala ere, idatz-zati honetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko, baldin eta subjektu pasiboak egiaztatzen badu bera titular den ondasunak eta eskubideak eskuratuak izan direla deklaraturako errenten kargura, edota beste zergaldi batzuetan lortutako errenten kargura, beste zergaldi horietan ez baldin bazeukan zerga horren edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasibo izaerarik Espainiako lurraldean.”

Atal berria. 24.1. artikuluari letra bat gehitzen zaio; h) letra, hain zuzen ere:

“h) Hartzaile bakoitzeko milioi bat eurotik gorako gastuak, zergaldi bat baino gehiagotan ordainduta ere, lan harremanaren –arrunta edo berezia– iraungitzetik edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 14.2 c) artikuluan aipatzen den merkataritzako harremanetik edo horietatik bietatik eratorriak badira. Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira sozietate talde bereko kide diren beste entitate batzuek ordaindutako zenbatekoak, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.”

Atal berria. 78.1. artikulua.

“1. Zerga honen subjektu pasiboek beren kontabilitateaz Merkataritza Kodean aurreikusirikoaren edo haien arauetan ezarrikoaren arabera arduratu beharko dute.

X. tituluko XII. kapituluak aipagai dituen subjektu pasiboek, edonola ere, kontabilitatea eramanen dute halako moduz non identifikatzeko modua egonen den zein diru-sarrerara eta gastu dagozkien salbuetsi gabeko errenta eta ustiapen ekonomikoak.”

Atal berria. 80.3. artikulua.

“3. X. tituluko XII. kapituluak aipatzen dituen subjektu pasiboak beren errenta guztiak deklaratzera behartuta egonen dira, errenta salbuetsiak nahiz salbuetsigabeak.

Edozein modutan, subjektu pasibo horiek ez dute deklaraziorik aurkeztu beharko ondoko baldintzak betetzen direnean:

a) Beren diru-sarrerak, urtean, ez badira 100.000 euro baino gehiagokoak.

b) Errenta salbuetsigabeei dagozkienak izaki atxikipenik behar ez duten diru-sarrerak, ez izatea, urtean, 25.000 euro baino gehiagokoak.”

Atal berria. Berrogeita bosgarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Berrogeita bosgarren xedapen iragankorra. Berrinbertsioagatiko salbuespenari dagokionez, inbertsioa gauzatzeko epea luzatzea.

36. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, berrinbertsioa egiteko epea 2013an zehar amaitzen den kasuetan, subjektu pasiboek berrinbertsio hori 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen gauzatu ahalko dute.

Bosgarren artikulua. Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea.

Atal berria. 9.3. artikulua.

“3. Fundazioak lau urteko epea du, 1. idatz-zatiak aipatzen duen proportzioan, lortutako errenten helburua gauzatzeko”.

Atal berria. 9.5. artikulua. Bigarren lerrokada.

Beste alde batetik, 3. idatz-zatian aurreikusten den lau urteko epea luzatzen ahal da errenten helburua egokitzen zaionean fundazioak prestaturiko eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onarturiko plan bati.

Atal berria. 11.1. artikulua.

“1. Foru lege honetako tributu araubideari atxikitzen zaizkion fundazioei derrigorrez aplikatuko zaizkie Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak, Nafarroako Foru Komunitateak ezar ditzakeen espezialitateak gorabehera.

Sozietateen gaineko zergan salbuetsi gabe dauden ustiatzietatik errentak lortzen dituzten fundazioek Merkataritza Kodean eta zerga horren arau erregulatzaillean aurreikusitako kontabilitate-betebeharrak izanen dituzte. Entitate horien kontabilitatea eramanen da halako moduz non modua egonen den identifikatzeko zein diru-sarrera eta gastu dagozkien salbuetsi gabeko ustiatzietatik”.

Atal berria. 11.4. artikulua.

“4. Aurreko 2. eta 3. idatz-zatiek aipatzen dituzten agiriak Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztuko dira hurrengo ekitaldiko lehen sei hilabeteetan, salbu eta egoera-balantzea eta emaitza-kontua, horiek sozietateen gaineko zergari dagokion aitortzean aurkeztuko baitira”.

Atal berria. 11. artikuluarik idatz-zati bat, zazpi-garrena, gehitzen zaio:

“7. Aurreko 2., 3. eta 6. zenbakietan aipatzen diren dokumentuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen duen modu-

an eta tokian aurkeztuko dira, eta hark erabakiko du zer prozedura erabili eta zer baldintzatan aurkeztu, baita baliabide informatiko edo telematiko bitartez aurkeztu behar diren edo ez”.

Artikulu berria. Iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko Lan Batzorde Iraunkorra.

Foru lege hau onetsi eta hiru hilabete epean, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko Lan Batzorde Iraunkorra eratuko da. Batzorde hori osatuko dute Nafarroako Gobernuko ordezkariak, parlamentu-talde bakoitzeko ordezkariak, Nafarroan ordezkariak handiena duten gutxienez lau sindikatu-taldeko ordezkariak eta beste entitate sozioekonomikoko ordezkariak, eta haren xedea izanen da arlo horretako jarduketak aztertzea, proposamenak egitea eta iruzur fiskalaren aurka borroka egiteko diseinatzen diren jarduketa planen eta neurrien jarraipena egitea.

Aipatu Batzorde Iraunkorra hiru hilabetean behin bilduko da, gutxienez.

Artikulu berria. Beharrezkoa den gehiengoaren amnistia fiskala dakarten neurriak onesteko.

Aitortu gabeko errentak edo ondareak azalertzeko xedearekin, denbora labur batez haiei loturiko kostu fiskala ezabatu edo murrizten duen edozein neurri onesteko, beharrezkoa izanen da Nafarroako Parlamentuan emandako bozen gehiengo absolutua izatea.

Xedapen gehigarri berria. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzea.

“3. 2012ko abenduaren 28an ixten den lehen balantzean jasotzen diren elementu eguneratzeko moduko gainean eguneratuko dira balioak, edo 2012ko abenduaren 31n erregistro liburuetan jasotzen diren gainean, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboen kasuan, zerga horrek behartzen baditu erregistro liburu horiek eramatera, betiere zerga aldetik guttiz amortizaturik ez badaude. Horretarako, izaera horrekin egin behar izan ziren amortizazioak hartuko dira gutxienez”.

Xedapen gehigarri berria. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen 3. artikuluko Lau atalak eragina zein eguneratutik aurrera izanen duen aldatzea.

“Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko

21/2012 Foru Legearen 3. artikuluko Lau idatz-zatiak 2012ko azaroaren 15etik aurrera gertatzen diren zergapeko egitateetan izanen du eragina.”

Xedapen gehigarri berria. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 5. idatz-zatiko eguneratze-koefizienteen taula aldatzea.

Ondoko taula hau izanen da Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 5. idatz-zatiko eguneratze-koefizienteen taularen ordezkia:

“1983 eta aurrekoak	2,422
1984	2,194
1985	2,047
1986	1,947
1987	1,886
1988	1,809
1989	1,720
1990	1,651
1991	1,593
1992	1,540
1993	1,478
1994	1,421
1995	1,351
1996	1,287
1997	1,255
1998	1,241
1999	1,233
2000	1,228
2001	1,202
2002	1,189
2003	1,170
2004	1,158
2005	1,144
2006	1,122
2007	1,097
2008	1,063
2009	1,040
2010	1,028
2011	1,028
2012	1,000”

Xedapen gehigarri berria. Enplegu publikoaren eskaintza.

Nafarroako Gobernuak, 2013. urtean, enplegu publikoaren eskaintzarako deialdi bat egingen du,

ehuneko 20 handitzeko Ogasuneko teknikarien kopurua, behar diren neurriak hartuko ditu hutsik dauden lanpostuak Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostu bihurtzeko eta lanpostu horiek betetzeko, eta, halaber, behar diren xedapenak emanen ditu Nafarroako Zerga Ogasuneko langileen ordezkapenari begira, hala-ko moduz non ziurtatuta egonen den zerga-iruzuraren aurkako borroka eraginkorra izatea.

Xedapen gehigarri berria. Tributu-betebeharren betetzean kontzientziatu eta hezi.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean, hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategia bat garatuko du, herritarrak kontzientziatu eta erantzukizunean eta tributu-betebeharren betetzean hezteko.

Estrategia horretan zehazturiko helburuen betetze-maila urtero baloratu eta berrikusiko da, eta, horretarako, dagokion jarraipen txostena aurkeztuko da Nafarroako Parlamentuan.

Xedapen gehigarri berria. Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko plana.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian aurreikusten den azterlana aurkeztzen denetik hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko lau urteko plan edo estrategia bat prestatu eta Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko dio. Plan hori urtero eguneratuko da, une bakoitzean dagoen informazioaren arabera, eta ondoko alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

a) Helburu zehatz eta neurgarriak, taxututako estrategiaren ebaluazio eraginkor bati ekin ahal izateko.

b) Helburu horiek betetzeko, iruzur fiskala detektatzea eta egiazki pertsegitzea sustatzeko eta jarduketak benetan gauzatzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta materialak.

c) Ezkutuko ekonomiaren gaineko berariazko neurriak.

d) Kenkarien, salbuespenen, diru-laguntzen eta bestelako hobari fiskalen aplikazioaren jarraipena egiteko eta egiazkoa eta zuzena dela kontrolatzeko programa bat.

e) Etengabeko jarraipena eta lortutako emaitzen urteko ebaluazioa, lortu nahi diren helburuekin alderatuta, strategiaren eraginkortasuna eta errentagarritasun ekonomiko-soziala ezartze alde-

ra. Ebaluazio hori ere Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da.

Xedapen gehigarri berria. Egiaztatze-programa orokorra.

Foru Legea indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak egiaztatze-programa orokor bat ezarriko du erregelamenduz, beren jarduerak azken kontsumitzaileei zuzenduak dituzten enpresaburu, profesional eta merkataritzako sozietateei buruzkoa, hain zuzen ere deklaratzeko erosten erosten arteko aldea marjina baten azpitik daukatenei buruzkoa.

Xedapen iragankor berria. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren estimazio objektiboko araubidea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi sinplifikatua, 2013rako.

“1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren estimazio objektiboko araubidea eta Balio

Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi sinplifikatua ez zaie aplikatuko 2012an araubide horien menpe egon ez diren jardueri.

2. Halaber, ez dira aplikatuko ondoko egoeretan:

a) Urtarrilaren 30eko 10/2012 Foru Aginduko 3.1.1.a) artikuluan jasotako jardueri, betiere diru-sarreraren bolumena, aipatu foru aginduan ezarritakoari jarraikiz zehaztua, 200.000 eurotik gorakoa bada.

b) Gainerako jarduera posiblei, aipatu diru-sarreraren bolumena 100.000 eurotik gorakoa bada.

c) Pertsona enplegatuen kopurua, foru agindu horren arabera kalkulatua, 2tik gorakoa bada.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2012ko azaroaren 12ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak 2013ko martxoaren 12an eta 14an egindako bileretan onetsia.

Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko zenbait artikuluko aldatzen duena

1. artikulua. Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 32. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“32. artikulua. Lanegunetako ordutegia.

Merkataritza-establezimenduak lanegunetan irekitzeko eta ixteko ordutegia, zeinak egunean gehienez ere hamabost orduko lanaldia ezarriko baitu, merkataritza bakoitzak libreki hautatuko du, betiere lan-araubidean langileei aitorturiko eskubiak ezertan kaltetu gabe.

Saltokiek asteko lanegunetan beren jardura garatzeko izanen duten ordutegi orokorrak ezin izanen du laurogeita hamar orduko kopurua gainditu, eta lan arautegiari lotuko da.”

2. artikulua. Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 33. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“33. artikulua. Igande eta jaiegunetan irekitzea.

1. Igandeak eta jaiegunak ez dira egun baliodunak izanen Nafarroako Foru Komunitatean merkataritza-jardueran aritzeko, berariaz baimendutakoak izan ezik.

2. Merkataritzaren arloan eskumenak dituen departamentuak, azaroaren 1a baino lehenago, Nafarroako Merkataritzaren Kontseiluari entzun ondoren, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, horren barne direla egun balioduntzat hartuko diren igandeak eta jaiegunak. Hamar izanen dira egun balioduntzat joko diren igande eta jaiegunak.

Hauek izanen dira aplikatuko diren irizpideak:

a) Hilabetean gehienez ere egun bat joko da balioduntzat, salbu eta abenduan, zeinean bi ezartzen ahalko baitira.

b) Urtean gehienez ere bi igande hartuko dira balioduntzat. Igandeok ezin izanen dira inola ere elkarren segidakoak izan.

3. Eskuduna den departamentuak egutegi hori aldatzeko aukera izanen du, baldin eta aldatzeko eskari arrazoitua jasotzen badu. Udalek, aldatzeko egin nahi badituzte beren udalerritarako, bi hilabeteko aurrerapenarekin egin beharko dituzte eskariak.

4. Merkataritza-establezimenduak igande eta jaiegun baimenduetan irekitzeko eta ixteko ordutegia, zeina gehienez ere hamabost ordukoa izanzen baita, merkatarari bakoitzak libreki hautatuko du, betiere lan-araubidean langileei aitorturiko eskubiak ezertan kaltetu gabe”.

3. artikulua. Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 46. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“2. Merkealdiko salmenta merkataria irizpidearen arabera finkatuko da, eta hark libreki erabakiko du haren iraupena, honako parametroei erreparatuta:

a) Merkealdiak urtean bi denboralditan egin ahalko dira; bata urte hasieran eta bestea udan, usadio eta ohiturei eta salmenta handieneko epeei jarraikiz.

b) Merkealdi horiek gutxienez astebete eta gehienez bi hilabete iraunen dute.

c) Denboraldi bakoitzaren hasierako eta amaierako datak foru aginduz finkatuko ditu departamentu eskudunaren kontseilariak.

d) Merkatarari bakoitzak foru aginduko irizpideei jarraikiz hautatzen dituen merkealdi egunak saltoki bakoitzaren kanpoaldean adierazi beharko dira, saltokia itxita dagoenean ere jendeak ikusteko moduan”.

Lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatoki Aholku-emailea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatoki Aholku-emaileak Nafarroako Merkataritzaren Kontseilua izena hartuko du.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuen aipamenak.

Ulertuko da merkataritzaren arloko eskumenak dituen departamentuari dagozkiola Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuen aipamenak, Nafarroako Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 36.2 artikuluan eta bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoak.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendurak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatzen du espainiar militarrek beren nazioarteko misioetan egin ahal izan duten tortura eta tratu txar oro.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 25an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatzen baitu espainiar militarrek beren nazioarteko misioetan egin ahal izan duten tortura eta tratu txar oro.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 25an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena

Orain dela gutxi, hedabide batek bideo bat argitaratu du, zeinean militar espainiar batzuk ageri baitira Iraken atxilotutako pertsona bat torturatzen. Argitaratutakoaren arabera, gertakariak 2004koak dira, armada Iraken aurkako legez kanpoko gerra batean parte hartzen ari zenekoak. Gogorarazi beharra dago ezen inbasio hark, legez kanpoko eta Espainiako gizarte gehien-gehienak arbuiatua izateaz gain, 120.000 hildako eta

1.300.000 lekualdatu eragin zituela, bai eta kalte ekonomiko neurrigabea ere, Iraken suntsipen handiko armak zeudelako gezur handian oinarrituta.

Argitaratu denez, atxilotu eta tratu txarrak eragindako pertsona Flayeh al Mayali zen, kazetari espainiarrentzat eta CNI-Espainiako Inteligentziaren Zentro Nazionalarentzat ere itzultzaile aritutakoa Iraken. Estatu Batuetako tropek 2004ko martxoaren 22an atxilotu zuten, Iraken konboi baten kontrako erasoan hildako CNiko agenteen joan-etorri buruzko informazioa matxinatu irakiarrei eman izanaren akusaziopean.

Espainiako Gobernuak ez zuen informaziorik eman bere garaian, ez haren atxilotetari, ez eta atxilotua zeukaten lekuari buruz ere. Antza denez, atxilotuak lau egun egin zituen espainiarren zaintzapean, eta ondoren Estatu Batuetako armadaren esku utzi zuten. Ia urtebete eman zuen Abu Ghraibeko eta Camp Buccako expetxeetan, non tortura eta tratu txar latzak gertatu zirela frogatu baita. Geroago aske gelditu zen, haren aurkako batere kargurik aurkeztu gabe.

Zenbait hedabidek gertakari horiek salatu zituzten bere garaian, eta halere ez zen bultzatu haren atxiloteta itxuraz arbitrarioari buruzko ikerketarik, ez eta hark salatutako tratu txarrei buruzkorik ere.

Zoritxarrez, zenbait hedabideren bitartez jakin izan denez, ez zen hori izan soldadu espainiarrek Irakeko inbasioan eragindako tortura eta tratu txarren kasu bakarra.

Jada 2004an ezagutu ziren destinoa Iraken zeukaten tropa espainiarrek atxilotutako herritar irakiarrei buruzko lekukotasunak. Gobernuak denbora asko behar izan zuen atxilotutako pertsona kopururari buruzko datuak emateko, eta datu horiek kontraesankorrak izan ziren sarritan.

2006ko apirilera arte, Gobernuak ez zuen eman atxilotuen kopuru osoa: militar espainiarrek 111 pertsona atxilotu zituzten. Atxilotuen izenak ez dira sekula ere eman.

Espainiako tropek Iraketik alde egin eta gutxira, Defentsa Ministerioko iturriek onartu zuten “orrialdea pasatu” beharra zegoela, Armadan ezinegona ez eragiteko; halatan, inpunitate-estalki bat jarri zen bere kideek egindako delitu orearen gainean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Militar espainiarrek beren nazioarteko misioetan eragindako tortura eta tratatu txar oro gaitzetsi eta arbuiatzea; zehazki, argitaratutako informazioen arabera Iraken inbasioan gertatutakoak.

2. Estatuko agintariei eta agintari judizialei exijitza salatutako gertakariak zorrotz iker ditzaten, eta horietatik heldu diren ardurak politikoak nahiz zigor arlokoak argi ditzaten.

Iruñean, 2013ko martxoaren 19an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da negoziazioak has ditzan Lodosako Udalarekin, “El Ramal” industrialdea Sartagudako errepideko biribilgunearekin eta herriko saihebidarekin lotzeko lanak egiteko akordio bat lortze aldera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 25an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita negoziazioak has ditzan Lodosako Udalarekin, “El Ramal” industrialdea Sartagudako errepideko biribilgunearekin eta herriko saihebidarekin lotzeko lanak egiteko akordio bat lortze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 25an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Sustapen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du negoziazioak has ditzan Lodosako Udalarekin, “El Ramal” industrialdea

Sartagudako errepideko biribilgunearekin eta herriko saihebidarekin lotzeko lanak egiteko akordio bat lortze aldera arrazoizko epe batean, horrela herri barruko garraio astunaren erregulazio berri bat erraztuko baillizateke.

Zioen azalpena

Lodosako herriak herriaren erdiguneko garraio astunaren arazoa konpondu behar du; izan ere, saihebidetako berriak ez du osotara konpondu arazo hori, ez baitauka lotunerik Inabonos enpresarekin, eta hori da, hain zuzen ere, garraio astunaren ehuneko handi bat eragiten duena.

“El Ramal” industrialdearen eta Sartagudako errepideko biribilgunearen arteko lotunea, zeina Errioxarantz doan edo Errioxatik datorren trafikoa bideratzeko obren parte ere baden, konponbidearen parte bat izan liteke, zeren garraio astuna erdigunetik igarotzea ekiditen lagunduko bailuke, arazo bat baita ez soilik oraindik herriko zeharbidetako denaren kontserbazioari begira, ezpada segurtasunari begira ere, zenbait istripu hilgarri gertatu direlako bertan.

Gobernuaren eta Udalaren arteko elkarrizketak oso aurreratuta egon ziren garai batean, baina geroago moteldu egin ziren, eta atzeratu egin zen, hartara, udal ordezkariak garrantzitsutzat jotzen duten arazoaren konponbidea.

Hori guztia ikusita, eta uste dugunez proposatutako konponbideak aipatu industrialdea dinami-

zatzeko ere balio duela, Ebro ibaiaren ardatzarekiko lotura hobetzen duelako, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du negoziazioak has ditzan Lodosako Udalarekin, "El Ramal" industrialdea Sartagu-

dako errepideko biribilgunearekin eta herriko saihesbidearekin (Na-134, Ebro ibaiaren ardatza) lotzeko lanak egiteko akordio bat lortze aldera, herri barruko garraio astunak oraindik ere eragiten dituen arazoak konpontzen laguntzeko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 19an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli